

## PIANOAREN ZURI-BELTZEAN

Nerea Erdozain Toribio

*Bilbo*

Ezin dut gehiago, Gorka eta haren pandila tun-tuna! Gaur ere, ukabilkadak eta zartakoak eman, eta irainak esan dizkirate, noiz aspertuko dira ni jotzeaz? Boxeoko poltsa bat dirudit kolpez beteta, baina diferentzia da boxeoko poltsak ez dituela zauriak egiten eta kolpeek ez diotela minik egiten. Hori da egia berdaderoa: pringatu bat naiz, zauriz eta minez beteta!

Horregatik, pianoa jotzen dut arratsaldero seietan neure sumina kentzeko. Abesti tristeak jotzen ditut tekla beltzekin. Nire ustez, pianoa instrumentu espeziala da, nire “lagun” bakarra bizitza osorako egia esanda.

Jende askok esaten didate:

–Pianoa gustuko duzu? instrumentu bat jotzea oso polita da, ezta?

Eta nik erantzun:

–Pianoaren soinua bi modutan deskribatu ahal da: modu onean eta txarrean. Onean, musika bakarrik disfrutatzen duzu; txarrean, berriz, zure sentimenduak hiltzen dituzu baina ezin zara pianoaren aulkitik jaiki pianoa jo behar duzulako.

Erantzun hori hausnartu dut, eta egia da. Nik modu txarrean bizitzen dut pianoaren soinua. Nire lagun bakarra da sentimenduetan min egiten didana baina doinu politez. Ez dut pianoa jo nahi, ez dut nahi benetan, baina pianoa jotzera behartuta nago, ez dakit baina behar dut. Pianoan nire bizitza kontatzen dut teklak jotzen, tekla beltzak. Pianoan pianistek bere bizitza kontatzen dute nahi gabe, baina kontatzen dute.

Pianoa bizitza bezalakoa da tekla bat urte bat da bizitzan. Pianoan zure bizitza egiten duzu eskumatik hasita ezkerrean bukatuta, nota altuekin hasten zara baxuekin bukatu. Pozik zaudenean tekla zuriak dira nagusi, beltzak ikusten dituzu baina nahiago dituzu ez jo. Baina triste zaudenean bakarrik beltzak ikusten dituzu eta tekla beltzak jotzen dituzu, ez dago besterik. Nik bakarrik tekla beltzak ikusten ditut, bakarrik 36 tekla beltz, beste 52ak niretzat ez dira existitzen. Horregatik, nik pianoaren musika modu txarrean ikusten dut, nire begiek ez dituztelako tekla zuriak ikusten eta horrek esan nahi du nire bizitza paper zikin bat dela, kolpez beteta, minez beteta. Pianoa jotzean nire bizitza ikusten dut pianoaren soinu tristearekin, eta gogoratzen dut nire bizitzak ez duela ezertarako balio. Eta aulkitik altxatzen saiatzen naiz malkoak kentzeko, baina ezin dut, pianoa jo behar dut, pianoarekin dantza egin nahi dut, pianoari esan behar diot nire bizitza zein zatarra den. Horregatik, egia esanda pianoaren soinurik ez balego txarrago sentituko nintzateke, ezingo niokeelako ezer esan inori, nire lagun bakarra delako.

Gaur ere errutina berdina, boxeoko poltsa baten errutina berdina. Gaur ere, institutuan jo egin naute baita hitz gogorrek esan dizkirate. Zergatik ezin dut bizitza bat eduki? Zergatik ezin dut ihesi tristuraren mundutik? Zer egin dut nik? Bakarrik eskatzen diot munduari egun batean momentu batean nire begiek malkorik ez izatea eta nire ahoak irribarre bat edukitzea. Horretarako, norbaitek maite behar nau, egunero alaitzen nauen pertsona batek. Berdin zait jotzen banau, nahi dudana da ni mundutik joaten banaiz, bere begietatik malakoak jaustea, eta ispiluari begiratzen dionean lotsa sentitzea ni hain gaizki tratatzeagatik.

Pianoari begiratu diot, zergatik ez ote dago tekla grisik? Ez dut ulertzen, zergatik? Nire bizitza hobea izango litzateke agian, edo ez. Ez dakit, baina dakidana da ni bi tekla beltzetan nagoela trabatuta, tristuraren erresuman. Eta ez dakit nola atera hortik. Igual da mundu horretatik ateratzeko alai egon behar dudala? Baina hori ezinezkoa da, pianoaren tekla bakoitzak oroitzapen bat ekartzen didalako, tristeak, noski, eta negarrez hasten naiz nire bizitza paper ziztrin bat delako. Eta pianoaren teklen soinua sentipen bat, eta horrek bai horrek porru eginda uzten nau. Horregatik, ezin dut alde egin? Hainbeste galdera dauzkat neure buruari galdetzeko. Eta konturatzen naiz beti direla “zergatik”. Pianoaren bizitzan sartu naiz eta konturatu naiz bi oportunitate ditudala: edo tekla okerrak jotzea edo tekla onak; edo teklak beltzak edo tekla zuriak; badakizue zein hartu nuen nik. Eta bizitzan, errea-

litatean, berdin: edo bide okerra edo bide ona edo triste edo pozik. Barrutik barre egin dut eta konturatu naiz bi bideek leku berberera eramaten zaituztela: HILTZERA. Esperientzia txarrekin edo onekin, pozik ala triste, berdin da, hilko gara. Orduan bai, orduan ikusi dut bizitzak bi aukera ematen dizkizula: beltza ala zuria, ez grisik, pozik ala triste, ez normal. Eta ikusi dut orduan bide okerrean nabiltzela, beltzean eta triste.

ZERGATIK EZ ALDATU?